

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 583/2017 Foru Agindua, urriaren 30koa, onartzen duena 231 eredua "Herrialdeka xehatutako informazio aitortpena"

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 19ko 3/2016 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuak pertsonen eta lotutako erakundeen artean egindako eragiketekin zerikusia duten funtsezko aldaketak jasotzen ditu.

Hain zuzen ere, «Base Erosion and Profit Shifting» (BEPS) ekintza planean (zerga oinarriaren higaduraren eta etekinak lekuz aldatzearen aurkako ekintza plana) onartutako ondorioak jasotzen ditu. Plan hori Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundearen (ELGE) baitan egin da, zehatz-mehatz, lotutako erakundeen eta eragiketen informazioari eta dokumentazioari buruzko 13. ekintzarekin zerikusia dutenetan. Horregatik, berrikuntza hau sartzen da: herrialdeka xehatutako informazioa; horren bidez merkataritza taldeen transferentzia prezioen politiken arriskuak ebaluatu ahal izango dira, eta Zerga Administrazioak inolaz ere ezin izango du erabili oinarritzat prezioak doitzeko. 2016ko urtarrilaren 1az geroztiko zergaldietarako eskatu ahal izango da informazio hori, eskatu ere foru agindu honen bidez onartutako ereduaren bidez.

Horren harira, abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 43.10 artikuluan zehazten du herrialdeka xehatutako informazioa emateko beharra dagoela, informazioa ematen deneko zergaldia bukatu aurretik. 37/2013 Foru Arauaren 43.11 artikuluan zehazten da herrialdeka xehatutako informazioaren edukia.

Informazioa emateko behar hori Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 1eko 41/2014 Foru Dekretuak, sozietateen gaineko zergaren erregelamendua onartzen duenak, garatzen du 21.bis artikuluan. Artikulu horrek eragina du 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan eta Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 14ko 3/2017 Foru Dekretuak jarri zuen indarrean. Foru dekretu horrek zehazten du Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren agindu bidez onartutako dela herrialdeka xehatutako informazioa emateko beharra betetzeko aurkeztu beharreko aitortpen eredua, bai eta ere, hala behar izanez gero, bete behar hori zer egoera eta baldintzetan bete beharko den bitarteko elektronikoen bidez. Zehazten du, halaber, informazio hori zergaldia amaizten denetik hamabi hilabete igaro baino lehen aurkeztu beharko dela.

Aipatu egin behar da, era berean, Kontseiluaren 2016/881 EB Zuzentaraua, 2016ko maiatzaren 25ekoa, oraintsu onartu dela. Zuzentzarau horrek aldatu egiten du 2011/16/EB zuzentzaraua, zergaren eremuan informazioa nahitaez automatiko trukatzeari dagokionean. Zuzentzarau horrek, Europar Batasunean, enpresa multinazionalen taldeek urtero eta lanean diharduten zerga lurralde bakoitzean herrialdeka aurkeztu behar duten txostena arautzen du, bermatzeko Batasun guztian informazio bera jasotzen dela eta informazio hori zerga administrazioei sasoiz aurkezten zaiela.

Hau da, informazioa herrialdeka aurkeztuko dute. Informazio hori 2011/16/EB Zuzentzarauaren 8.bis.hiru artikuluan, 2016/881/EB Zuzentzarauak gehitutakoan, eta abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 43.11 artikuluan aipatutakoa izango da eta talde batean nagusi izaera duten eta egoitza Espainiako lurraldean duten erakundeek aurkeztuko dute. Izaera zein den eta egoitza non den 37/2013 Foru Arauaren 42.3 artikulua xedatzen du. Erakunde hori ezin izango da beste erakunde baten mende egon, eta informazioa aurkeztuko da taldea osatzen duten pertsonen edo erakundeen eragiketa bolumena, zergaldia hasi aurreko 12 hilabeteetako, 750 milioi euro edo gehiago denean. Era berean, Espainian dauden eta

zuzenean edo zeharka Espainian ez dagoen erakunde baten mendeko diren erakundeek ere aurkeztu beharko dute informazio hori, kontuan hartuta, bigarren erakunde horiek ezin dutela beste erakunde baten edo bertakoak ez diren erakundeen establezimendu iraunkorren mende egon, baldin eta honako inguruabarren bat jazotzen bada: 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 43.10 artikuluan xedatutako inguruabarrak eta taldea eratzten duten pertsonen edo erakundeen eragiketa bolumenak 750 milioi euro edo gehiago egiten badu, zergaldia hasi aurreko hamabi hilabeteetan.

Bestalde, ezinbestekoa da adieraztea, abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 43.10 artikuluan xedatzen duenez, Espainian egoitza izan eta herrialdeka informazioa aurkeztera behartuta dagoen talde bateko kide den zernahi erakundek zerga administrazioari jakinarazi beharko diola informazio hori ematera behartutako erakundeak egoitza zein herrialde edo lurraldetan duen eta haren identifikazioa. Horrako hori urtero jakinarazi beharko da informazioari erreferentzia egiten dion zergaldia bukatu baino lehen, eta adierazi beharko du nor den aurkeztera behartua eta behartu horrek erakunde nagusi, erakunde filial behartu edo erakunde subrogatu gisa egiten duen.

Testuinguru horretan nahitaezkoa da informazioa herrialdeka aurkezteko dagokion eredia onartzea eta aurkezpen telematikorako betekizun orokorrak zehaztea.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak honetaz egindako txostena aztertu da.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hauxe

XEDATZEN DUT

1. artikulua. 231 eredia "Herrialdeka xehatutako informazio aitortzea" onartzea

231 eredia "Herrialdeka xehatutako informazio aitortzea" onartzen da. Horren edukia foru agindu honen eranskinean ageri da.

Aurkezpen uean Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa DiputacionDigital; helbide elektronikoa: <http://www.araba.eus> jasotzen diren betekizun teknikoaren arabera egingo da zergaldi berari erreferentzia egin eta alde zuzenetik aurkeztutako beste aitortzen bat osatu edo ordeztzen duten aitortzenak aurkezten erabilitako mezu informatikoen aurkezpena.

2. artikulua. 231 ereduaren "Herrialdeka xehatutako informazio aitortzea" edukia

1. Erakunde nagusiaren zergaldiari dagokionez, herrialdeka egindako aitortzenak modu agregatuan hartuko du barne herrialde edo jurisdikzio bakoitzari buruzko informazio hau:

- a) Taldearen sarrera gordinak, erakunde lotuekin edo hirugarrenekin lortutakoak bereiziz.
- b) Sozietateen gaineko zergaren edo izaera bereko edo antzekoko beste zerga batzuen aurretiko emaitzak.
- c) Ordaindu diren sozietateen gaineko zergak edo izaera bereko edo antzekoko beste zerga batzuk, jasandako atxikpenak barne.
- d) Sortutako sozietateen gaineko zergak edo izaera bereko edo antzekoko beste zerga batzuk, jasandako atxikpenak barne.
- e) Zergaldia amaitzen denean kapitalaren zifraren zenbatekoa eta dauden beste funts propio batzuk.
- f) Batez besteko plantilla.
- g) Diruzaintza eta kreditu eskubideak ez diren aktibo materialak eta higiezin inbertsioak.
- h) Erakunde egoiliarren zerrenda, establezimendu iraunkorrak eta horietako bakoitzak egindako jarduera nagusiak barne hartuta.

i) Garrantzitsutzat jotzen den beste edozein informazio eta, hala badagokio, informazioak bildutako datuen azalpena.

2. Espainiako egoiliar den erakunde bat herrialdekako informazioa aurkeztera behartutako talde bateko kide bada, informazio hori ematera behartutako erakundea dagoeneko herrialdea edo lurraldea eta erakundearen identifikazioa ere jakinaraziko dira.

3. Artikulu honetan ezarritako informazioa eurotan aurkeztuko da.

3. artikulua. 231 eredia aurkezteko epea

231 eredia "Herrialdeka xehatutako informazio aitortpena" aurkezteko hamabi hilabete izango dira, aurkeztu beharreko informazioari dagokion zergaldia bukatzen denetik aurrera.

4. artikulua. 231 eredia "Herrialdeka xehatutako informazio aitortpena" elektronikoki aurkezteko era, baldintza orokorrak eta prozedura

231 eredia "Herrialdeka xehatutako informazio aitortpena" nahitaez aurkeztuko da telematikoki Interneten bidez; hain zuzen ere, online beteko da Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoan DiputacionDigital; helbide elektronikoa: <http://www.araba.eus>; horretarako, erakunde aurkezleak edo haren borondatezko ordezkariak "DiputacionDigital"eko zerbitzuetara sartzeko betekizunak beteko ditu, apirilaren 5eko 26/2011 Foru Dekretuak, foru aldundiaren egoitza elektronikokoak, xedatutakoarekin bat etorritik.

Eremu okerrak errefusatu gero, erakunde nagusi, filial edo subrogatuak beharrezko zuzenketak egin beharko ditu eta berriro aurkeztu beharko du, aurkezpen horren barruan lehenago errefusatu ziren kontuen erregistroak jasoz.

5. artikulua. Mezu informatikoen formatua eta diseinua

Herrialdeka xehatutako informazio aitortpenaren gain diren mezu informatikoen formatua eta diseinua, bai eta haren edukia foru agindu honen eranskinean zehazten dena osatzen duten elementuak ere, unean unean Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoan DiputacionDigital; helbide elektronikoa: <http://www.araba.eus> jasota daudenak izango dira.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta 2016ko urtarrilaren 1az geroztik hasitako zergaldiei aplikatuko zaie.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urriaren 30a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
JOSE LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasun zuzendaria
TERESA VIGURI MARTINEZ

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava</p> <p>Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila Departamento de Hacienda Finanzas y Presupuestos</p>	<p>Informazio aitortpena herrialdez herrialde</p> <p>.... EKITALDIA</p>	<p>231</p> <p>EREDUA</p>
--	---	--

Entitate aurkezlearen identifikazioa

Sozietatearen izena	IFZ
Probintzia kodea	
Herrialdez herrialdeko txostena aurkezteko izaera	
<input type="checkbox"/> Sozietate nagusia <input type="checkbox"/> Entitate subrogatua <input type="checkbox"/> Entitate eratzaillea	

Taldearen identifikazioa

Talde multinazionalaren izendapena edo izena	Entitate nagusiaren IFZ ondorio fiskalatarako
Entitate nagusiaren izena	
Finkatuta dagoen herrialdea	

Ikuspegi orokorra mozkinak, zergak eta jarduera ekonomikoak jurisdikzio fiskalaren arabera banatzeari buruz

Jurisdikzio fiskala	Diru sarrerak			Mozkinak/ (galerak) sozietate zergaren aurretik	Sozietate zerga(1) ordaindua (kutxa irizpidea)	Sozietate zerga(1) sortua (uneko urtea)	Aitortutako kapitala	Mozkin banatu gabeak	Langile kopurua	Aktibo ukigarriak, diruzaintza edo diruzaintzaren tresna balioak ez direnak
	Hirugarrenak	Entitate lotua	Guztira							

(1) Adierazi sozietateen gaineko zerga edo, hala badagokio, horren antzekoa den mozkinen gaineko zerga.

Jurisdikzio fiskalaren arabeko agregazio bakoitzean sartuta dauden talde multinazionalen entitate guztien zerrenda

Jurisdikzio fiskala	Jurisdikzio fiskalean egoilar diren taldeko entitateak	Eraketa edo antolaketa jurisdikzio fiskala, egoitzako jurisdikzio fiskalaren desberdina bada	Jarduera ekonomiko nagusia(k)												
			Merke eta garapena	labeza inbektuaren titulatasuna edo kudeaketa	Enketak edo homidurak	Fabrikazioa edo produktzioa	Salmentak, komertzializazioa edo banaketa	Administrazio, kudeaketa edo laguntza zerbitzuak	Ekaru gabeko entitateen emandako zerbitzuak	Taldeko baimen finantzak	Araututako zerbitzu finantzarioak	Aseguruak	Altzorpen edo kapitala ordaintzen duten beste tresna bakoitzaren titulatasuna	Jarduerarik gabe	Besterik (2)

(2) Adierazi "informazio gehigarria" atalean taldeko entitatearen jardueraren izaera.

Informazio gehigarria

Informazio edo azalpen osagarriak sartu behar dira, laburbilduta, baldin eta beharrezkoak badira edo errazten badute herrialdez herrialdeko txostenean derrigorrez jasotako informazioa ulertzea.